



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek, Mercadilloko zubia, La Basconiaren instalazinoak eta Olaso Jauregia Kultur Ondasun izatea eskatu dabe**

Bilbon, 2015eko urriaren 2an.

Bizkaiko Batzar Nagusiek, Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako arauz besteko proposamen bi onetsi ditue gaur goizean, Bizkaiko hiru moltso arkitektoniko “bereziren” babesa eskatzeko, Mercadilloko zubia (Galdakao), La Basconiako instalazinoak (Basauri) eta Olaso Jauregia (Trapagaran). Talde guztien aldeko botoagaz –EH Bildu eta Bizkaiko Ahal Dugu taldea abstenidu egin dira gaur egun Trapagako Kultur etxea dan Jauregiaren kasuan–, Bizkaiko Batzar Nagusiek, Kultur Ondasun izendatzeko espedienteak zabaltzeko eskaerea bideratuko dabe Eusko Jaurlaritzara.

Ekimenen defendatzailearen, Arturo Aldecoa popularraren, eretziz, “garrantzitsua” da proposamen hori aurrera ataratea, espedientea zabaltzea eskatzeagaitik bakarrik “hilebeteak” irauten dituan aldi baterako babesa lortzen dalako.

Ganera, hiru ekimenak bat datoz ondasun horreek dagozan udalerrietako Udalek hartutako ebazpenakaz. Aldecoak adierazo dauenez, Mercadilloko zubiaren kasuan biztanleen alkarte bat izan zan udalerrian bertan kontserbazinorako ekimena bultzatu ebana, Bengoetxe auzoan dagoan zubiaren egiturea babesteko.

“Industriaren katedral” moduan definidu dauenari jagokonez, Aldecoak, Basauriko La Basconia lantegi zaharretik geratzen diran hiru pabilioiak babestea eskatu dau, 2012an onartutako mozinoan udalerriak berak erakutsi eban asmoagaz bat etorritz.

Trapagako Olaso jauregiaren kasuan, bere egunean Udalak, Kultur Etxe bilakatzeko, egindako barrikuntza lanen parte bat penagarria dala esan dau Aldecoak. Uste dau komenigarria dala orain babestea, etorkizunean eraikin horretan egin beharreko esku-hartzeak “kontu gehiagogaz” egin daitezana.

### **LEKEITIOKO MENDIETA UNTZIOLAK**

Beste alde batetik, Euskera eta Kulturako batzordeak ez dau onartu PP taldeak egindako arauz besteko beste proposamen bat, Bizkaiko Batzarrek eskaerea egin deioen “Foru Aldundiari, Euskal Kultur Ondarearen Legean eta haren arauzko garapenean oinarrituta, Lekeitioko Mendieta Untziolen babesean eta zainketan ofizioz jardun daian, horrek eragindako gastuak haren titularrei eskatzeko eta, azkenean beharrezkoa bada Kultura Intereseko Ondasuna desjaubetzeko eta bereganatzeko, kontserbazinoa bermetako”. Batzarretako ganerako talde guztiek proposamen horren kontrako botoa emon dabe.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Arturo Aldecoa adierazo dauenez, Bizkaien “moeta horretako egitura gitxi dagoz”, eta “preminazko neurriak martxan jarteko ordua da”. Aldundia “ofizioz” aritzearen alde agertu da, beharrezkoa bada jaubetza desjaubetuz, gero konponketaren gastuak jaubeei eskatzeko. Kosten Demarkazinoan “urte luzez gai hori konpondu” ez izana salatu dau. Erakunde hori da lurren jaubea, eta bere egunean, 2018an amaituko dan jarduera emakidea emon eutsan Mendieta familiari. Aldundiari gaiari heltzeko eta “gero fakturea Madrileri” pasetako eskaerea egin deutso, arkitektura moltsoaren egoerea gero eta okerragoa dalako.

Bere ekimenak ez dau aldeko botorik jaso, batez be leku “okerrera” bideratu dauelako. Bizkaiko Ahal Dugu taldeak “alkarrizketarako zubiak” zabaltzearen aldeko apustua egin dau holango neurri “zorrotzik” hartu baino lehen, “ezer inposau ez daiten”. Jose Angel Elgezabalek ironiaz esan dau harrigarria egiten jakola PP-k “desjaubetzearen eta desobedientzia zibilaren” aldeko apustua egitea.

EAJ-PNV, EH Bildu eta PSE-EE bat etorri dira azken urteotan narriadura handia jasan dauen untziolan “preminaz jardun behar dala” esatean, baina uste dabe konponbidea Gobernu Zentralaren eskutik etorri behar dala. Administrazio hori da lurren jaubea, eta ez dau ia 20 urte amaitu zan emakidea fiskalizetan asmatu.

Juan Oterminen eretxiz, PP-ren ekimenak “tranpea” dauka, Aldundia “geurea ez dan” jaubetza batean parte hartzera bultzatu gura dauelako. “Nahaste-borraste batean sartuko ginateke. Ezinezkoa da ondasun bat babestea inork ez dakien moduko sua sortuz”, esan dau. Ganera, “Udala nahasketa handian sartuko litzateke”.

EH Bilduk Kosten Demarkazinoa kritikau dau, bere beharra ondo egin ez dauelako. “Ze zentzu dauka emakidari eustea baldintzak beteten ez diranean?” galdetu dau Meritxell Elgezabal batzordekideak, 2018an amaituko dan emakida baten ganean Gobernu zentralak aurrera eroan dauen kontrola zalantzan jarriz. Ganera, kontuan izan behar da untzioak “ia 20 urte” daroazala funtzionau barik. Gaia konpondu behar dauena Madrilgo Gobernua dala esan dau.

EAJ-PNV-ko Ana Esther Furundarenak, untzioak Kultura Intereseko Ondasunari jagokon babesa izan daian Foru Aldundiak egin dituan ahaleginak azpimarratu ditu, eta horren ostean, bere aurretik berba egin dabenek egin dabene moduan, eraikinaren jaubea Estadia dala gogoratu dau, eta ez Mendieta familia. Batzordekide jeltzaleak esan dau Aldundia eta Lekeitioko Udala “behin baino gehiagotan” joan dirala Kostako erakundera azalpenak eskatzeko eta gaia zein lege egoeratan dagoan jakiteko. Furundarenak eskaerea egin deutso PP taldeari, Diputaduen Kongresuan arin ibili daiten, untzioak guztiz jausi aurretik, bertan bere taldeak gehiengo daukalako.

Gai horri jagokonez, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako foru diputatu andreak, Lekeitioko Udalgaz batera, Ministerioko arduradunakaz harremanetan jarteko konpromisoa hartu dau, korapiloa soltetako. “Gai horren inguruan emoten doguzan pausuen barri emongo jatzue”, esan dau.

## BARAKALDOKO ZUBILETA TORRETXE A

Aldecoa popularraren berbetan “oso egoera txarrean dagoan, eta zeozer egiten ez bada, laster jausiko dan” XVI. mendeko Zubileta Torretxeari jagokonez, Lorea Bilbao diputatu andreak,



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

saioaren bukaeran, eraikin hori inguratzen daben baldintza guztiak jasoko dituan txosten teknikoa egiteko konpromisoa hartu dau, ostean babestu beharreko elementuak kontserbetako “emon beharreko pausuak” emon ahal izateko.

Batzarretako Socialistas Vascos taldeak egindako eskaerari erantzunez diputatu andreak agertu dauen konpromisoaren ostean, PP-k, batzordera ekarri dauen arauz besteko proposamena baztertzea erabagi dau. Proposamen horren bitartez eskaerea egin gura eutsan Foru Aldundiari, Barakaldoko Udalgaz eta Eusko Jaurlaritzagaz koordinata, Burtzeña auzoan, Kadagua errekearen ertzetan, dagoan Torretxean dagozan egiturak kontserbetako preminazko neurriak hartu eizan.

### 1919KO NAZINOARTEKO ERAKUSKETEAK

PP taldearen ekimenez, eta aho batez, eskaerea egin jako Aldundiari, “parte hartu gura daben beste erakundeakaz eta administrazioakaz batera, Bilbon 1919. urtean egin zan Nazinoarteko Pintura eta Eskultura Erakusketearen mendeurrena ospatzeko ekitaldiak prestetako, izpiritu kultural zabala eta, aldi berean, unibersala, jasoz.”

Aldecoak defendidu dauenez, 2019. urtean dana prest egon daiten beharrezkoa da beharrean “gaur” hastea, gauza horreek “denporaz egin behar diralako”. Lehen Mundu Gerra amaitu eta denpora gitxira Bilbon egin zan erakusketa harek Euskal Herriko, Espainiako eta Europako sortzaileen artelan garrantzitsuak batu ebazan.

Bizkaiko Ahal Dugu taldeak esan dau une egokia dala “herritarren partaidetzea” eta ez Herri Administrazioena bakarrik, izango dauen ospakizuna bultzatzeko. EAJ-PNV-k uste dau “garrantzitsua dala” Bizkaiko artearentzat historikoa izan zan gertakaria gogoratzea, eta Bilboko Arte Eder Museoagaz alkarlanean egin beharko litzatekela.

### BERREGINEN MUSEOAREN ERAKUSKETA IBILTARIAK

Bukatzeko, Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onartu dabe Aldundiak azterlana egitea eta Bilboko Udalgaz lortu beharreko akordioak lortzea Bilboko Arte Berreginen Museoa zanaren arte bildumatik Bilboko instalazino barrietan erakusgai ez dagoan zatia Bizkaiko herrietako Kultur etxeetara, kultur zentroetara eta museoetara eroateko, txandaka, eskultura unibersalaren maisu lanei buruzko erakusketa ibiltariaren barruan.

Erakusketa ibiltari horreek egitea “benetako arrakastea” izango litzatekela esan dau Aldecoak, “azken mila urteetako artelan garrantzitsuenen” kopien aurrean gagozalako. Ganera, San Frantzisko auzoaren bihotzean dagoan Museoa “balioan jarteko” be baliagarria izango litzateke.

Talde guztiak ekimenaren alde agertu dira. EAJ-PNV-k esan dauenez, museoak berak, 2008tik, “200 pieza baino gehiagok osatzen dituen” museoko fondoak erakusteko aldi baterako erakusketak eta bestelako kultura ekimenak egiten ditu bere instalazinoetan. Dana dala, jende aurrean erakutsi aurretik, pieza horreek barrizatze prozesua gainditu behar dabe. Jane Eyre Urquieta jeltzaleak alderdi hori be kontuan hartu behar dala adierazo dau, eta baita artelanak garraiatzeak, instaleteak eta zaintzeak izango dauen kostua be. Kostu hori, erakusketak jasoten dituen Udalek hartu beharko leukie euren gain.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales de Bizkaia piden que el puente de Mercadillo, las instalaciones de La Basconia y el Palacio Olaso, sean Bien Cultural**

Bilbao, a 2 de octubre de 2015.

Las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado esta mañana sendas proposiciones no de norma presentadas por el grupo Popular Vizcaíno (PP) para pedir la protección de tres conjuntos arquitectónicos “singulares” de Bizkaia como son el puente de Mercadillo (Galdakao), las instalaciones de La Basconia (Basauri) y el Palacio Olaso (Trapagaran). Con el apoyo de todos los grupos –solo EH Bildu y Podemos Bizkaia se han abstenido en el caso de lo que es ahora la Casa de Cultura de Trapagaran-, la Cámara vizcaína trasladará al Gobierno Vasco esta petición para impulsar la apertura de los correspondientes expedientes de incoación como Bienes Culturales.

Para el defensor de las iniciativas, el popular Arturo Aldecoa, es “importante” sacar adelante esta propuesta ya que por el simple hecho de pedir la incoación del expediente, se alcanza una protección temporal “durante meses”.

Las tres iniciativas encajan, además, con las distintas resoluciones municipales acordadas en los municipios en donde se asientan los bienes. En el caso del puente del Mercadillo fue una asociación vecinal la que impulsó, según Aldecoa, una iniciativa de conservación en el propio municipio para salvaguardar la estructura del puente, sito en el barrio de Bengoetxe.

En cuanto a lo que ha definido como “la catedral de la industria”, Aldecoa se ha referido a la protección de los tres pabellones de lo que actualmente queda de la antigua fábrica de La Basconia, en Basauri, siguiendo también el deseo del municipio mostrada en una moción aprobada en el año 2012.

En cuanto al palacio Olaso de Trapagaran, Aldecoa ha lamentado parte de la restauración realizada en su día por el ayuntamiento para convertirla en Casa de Cultura. Cree que es bueno que se proteja ahora para que en el futuro las intervenciones sobre el edificio se hagan “con más cuidado”.

### **ASTILLEROS MENDIETA DE LEKEITIO**

Por otra parte, la comisión de Euskera y Cultura ha rechazado una proposición no de norma del PP para que la Cámara vizcaína instara “a la Diputación Foral a, en base a la Ley de Patrimonio Cultural Vasco y su desarrollo normativo y reglamentario, actuar de oficio en la protección y preservación del BIC de los Astilleros de Mendieta, en Lekeitio, reclame posteriormente los gastos producidos a los titulares de los mismos y, si finalmente fuera preciso, expropie el BIC para garantizar su preservación.” La propuesta ha sido rechazada en bloque por el resto de grupos junteros.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Arturo Aldecoa ha señalado que existen “pocas estructuras de este tipo” en Bizkaia y “va siendo hora de que se pongan en marcha medidas urgentes”. Ha apostado por que la Diputación actúe “de oficio”, expropiándose incluso la propiedad si llegara el caso, para reclamar luego los gastos de reparación a los propietarios. Ha lamentado que no se haya conseguido “desatascar en muchos años” este asunto en Demarcación de Costas, propietaria de los terrenos que en su día aprobó una concesión de actividad a la familia Mendieta que finaliza en 2018. Ha instado a la Diputación a tomar la iniciativa y “a pasar luego la factura” a Madrid, debido al grave deterioro que sufre el conjunto arquitectónico.

Su iniciativa no ha recibido apoyo alguno, principalmente por “confundir” el destinatario de la misma. Podemos Bizkaia, antes de tomar una medida “tan drástica”, ha apostado por abrir “puentes de diálogo” entre las instituciones para que “no se imponga nada”. Su apoderado José Angel Elgezabal ha ironizado sobre el hecho de que el PP apueste por la “expropiación y la desobediencia civil”.

PNV, EH Bildu y PSE-EE han coincidido en que hay que actuar “de forma urgente” sobre un astillero que ha sufrido en los últimos años un gran deterioro, aunque creen que la solución tiene que venir desde el Gobierno central, administración que posee la titularidad de los terrenos y no ha sabido fiscalizar una concesión de una actividad que terminó hace casi 20 años.

Para Juan Otermin, la iniciativa del PP tiene “trampa”, ya que empuja a la Diputación a intervenir en una propiedad “que no es nuestra”. “Nos metemos en un galimatías. No se puede proteger un bien generando un fuego de consecuencias extrañas”, ha dicho, aparte de conseguir “meter al ayuntamiento en un cenagal”.

EH Bildu ha criticado a Demarcación de Costas por no hacer bien su trabajo. “¿Qué sentido tiene mantener la concesión cuando no se cumplen las condiciones?” , ha preguntado la apoderada Meritxell Elgezabal, quien ha cuestionado el control del Ejecutivo central sobre una concesión que terminará en el año 2018, con el agravante de que el astillero dejó de funcionar hace “casi 20 años”. Ha exigido que sea el Gobierno de Madrid el que resuelva el asunto.

Ana Esther Furundarena, del PNV, ha destacado primeramente los esfuerzos de la Diputación para que el astillero contara con una protección como Bien de Interés Cultural, para después aclarar, como sus predecesores, que las edificaciones son propiedad del Estado y no de la familia Mendieta. La jeltzale ha señalado que la Diputación y el ayuntamiento de Lekeitio han acudido “en más de una ocasión” a Costas para pedir explicaciones y saber en qué situación legal se encuentra el asunto. Furundarena ha instado al PP a actuar con celeridad en el propio Congreso de los Diputados en donde tienen mayoría para evitar que el astillero se siga deteriorando.

En relación a este caso, la diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, se ha comprometido, junto al Ayuntamiento de Lekeitio, a ponerse en contacto con responsables del Ministerio para desatascar el asunto. “Les daremos cuenta de los pasos que vayamos dando respecto a este asunto”, ha dicho.

CASA TORRE DE ZUBILETA EN BARAKALDO



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

En relación a la Casa Torre de Zubileta , edificio del siglo XVI que está “en muy mal estado, le quedan dos telediaros si no se actúa”, ha señalado el popular Aldecoa, la diputada Lorea Bilbao ha intervenido también al final de la sesión para comprometerse a realizar un informe técnico que incorpore todos los condicionantes que rodean esta edificación y que sirva para, posteriormente, dar “los pasos necesarios” para la conservación de los elementos a proteger.

Tras el compromiso de la diputada, previa petición del grupo juntero Socialistas Vascos, el PP ha decidido retirar la proposición no de norma que traía a la Cámara con la cual pretendía instar a la Diputación Foral a que, en coordinación con el Ayuntamiento de Barakaldo y el Gobierno Vasco, procediese a adoptar medidas urgentes para la conservación de las estructuras existentes de la Casa Torre ubicada en el barrio de Burtzeña a orillas del Cadagua.

#### EXPOSICIÓN INTERNACIONAL DE 1919

Asimismo, el PP ha conseguido que se inste, por unanimidad, a la Diputación “a promover, junto a aquellas otras instituciones y administraciones que deseen participar, la preparación de los actos del centenario de la Exposición Internacional de Pintura y Escultura celebrada en Bilbao en 1919, recogiendo su espíritu cultural abierto y, a la vez, universal.”

Aldecoa ha defendido que para que esté todo listo en el año 2019, hace falta empezar a trabajar “hoy”, ya que estas cosas “hay que hacerlas con tiempo”. Aquella exposición celebrada en la villa poco después de concluida la primera guerra mundial, reunió un importante grupo de obras de arte de creadores vascos, españoles y europeos.

Podemos Bizkaia ha señalado que es un buen momento para impulsar una efeméride que cuente “con la participación ciudadana”, y no solo con las Administraciones Públicas. PNV cree que es “importante que se recuerde” esta acontecimiento histórico para el arte vizcaíno y que se haga en colaboración con el Museo de Bellas Artes de Bilbao.

#### EXPOSICIONES ITINERANTES DEL MUSEO DE REPRODUCCIONES

Finalmente, el Parlamento de Bizkaia ha aprobado por unanimidad que la Diputación realice un estudio y alcance los acuerdos oportunos con el Ayuntamiento de Bilbao, para que obras seleccionadas de la colección del antiguo Museo de Reproducciones, que no se exponen habitualmente en las nuevas instalaciones de Bilbao, roten por las Casas de Cultura, centros culturales y museos de los municipios vizcaínos dentro de una exposición itinerante sobre obras maestras de la escultura universal.

Aldecoa ha considerado que la materialización de estas exposiciones itinerantes sería “un auténtico éxito”, ya que nos encontramos ante copias de “obras extraordinarias de los últimos milenios”. Al tiempo, serviría para “poner en valor” al Museo ubicado en pleno corazón del barrio de San Francisco.

Todos los grupos se han mostrado a favor de la iniciativa. El PNV ha señalado que el propio museo realiza, desde el año 2008, en sus instalaciones, exposiciones temporales y otras iniciativas culturales para mostrar sus fondos museísticos – “que cuentan con más de 200 piezas”- pero que previamente tienen que pasar por un proceso de restauración antes de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

mostrarlas en público. La jeltzale Jane Eyre Urquieta ha advertido que se tenga en cuenta este aspecto y, también, el coste derivado del transporte, la instalación y la custodia de las obras, que tendría que ser asumido por los ayuntamientos que acogan estas exposiciones.